



DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ENTITATE PUBLIKOAREN KONTRATAZIORAKO
BARNE JARRAIBIDEA

A. APLIKATU BEHARREKO KONTRATAZIO ESPARRUA

B. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK

I. Orokorrean aplikatu beharreko arauak

1. KONTRATAZIO ORGANOA
2. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK
3. KONTRATUAREN ELEMENTUAK
4. KONTRATUA PRESTATZEA
5. KONTRATUA EGITEA
6. KONTRATUA GAUZATZEA

II. Plegua

III. Esleitzeko prozedurak

1. OBRA KONTRATUAK
2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUAK ETA BESTE BATZUK)

IV. Errekurtsoak

C. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK

I. Orokorrean aplikatu beharreko arauak

1. ESPEZIALITATEAK, KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEI DAGOKIENEZ
2. KONTRATUA PRESTATZEA
3. KONTRATUA GAUZATZEA ETA FORMALIZATZEA

II. Plegua

III. Esleitzeko prozedura

IV. Errekurtsoak

1. PRESTATZEA ETA ESLEITZEA
2. ONDORIOAK ETA AMAIERA

V. Ofizioz Berraztertzea

D. KONTRATUGILE PROFILA

I. ERANSKINA

II. ERANSKINA

III. ERANSKINA





DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ENTITATE PUBLIKOAREN KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEA

A. APLIKATU BEHARREKO KONTRATAZIO ESPARRUA

Donostiako Etxegintza enpresa-entitate publikoa Donostiako Udalaren tokiko enpresa-entitate publiko gisa eratauta dago.

Entitatearen helburua da hiritarrek etxebizitza duina eta egokia edukitzeko duten eskubidea gauzatzeko beharrezko jarduerak egitea, baita beste jarduera eta zerbitzu osagarri batzuk egitea ere.

Entitateak helburu soziala betetzeko honako jarduerak izango ditu bere kargura:

- a) Eraikinak, etxebizitzak eta beste edozein motatako ostatuak, lokalak eta aparkalekuak edozein titulu bidez eskuratutako lurzoruetan sustatzea, eskuratzea, eraikitzea eta kudeatzea, edozein babes publikoko erregimenetan, erregimen librean edo prezio mugatuan.
- b) Haren titulartasuneko edo titulartasun publikoko ondasun higigarriak edo higiezinak, edo partikularrek zein beste erakunde batzuek sustatutakoak –horiekin adostu bada– esleitzea eta, hala badagokie, ematea, jabetza-erregimenean, azalera-jabetzan, alogeran, biztante-erregimenean, emakidan edo bestelako moduren batean.
- c) Hutsik dagoen beste baten etxebizitza errentatzearen edo lagatzearen alde egitea. Zehazki, birgaitze integratuko eremu gisa izendatutako eremuak hiri-mailan birgaitzeko eta berritzeko jarduerak, eta haien hirigintza-egoeraren ondorioz edo gizarte- eta ekonomia-egoeraren ondorioz hala behar duten eta Udalak hala esleitzen dien beste eremu, zona sektore edo auzo batzuk hiri-mailan birgaitzeko eta berritzeko jarduerak, betiere Udalak hiriko hirigintza-ondarea eta ondare eraikia birgaitzeko, berritzeko edo balioz hornitzeko esleitzen dituen beste proiektu berezi batzuk kudeatzearen kalterik gabe. Ildo horretan honako jarduera hauek izango dira funtsezko jarduerak: a. Gizarte- eta hirigintza-mailako azterlanak egitea eta horien jarraipena egitea. b. Hirigintza-planak eta -proiektuak formulatzea, kargak eta onurak banatzekoak barne, eta indarrean dagoen hirigintza-legeriaren arabera horiei egoki dakiekeen bideratzeko eta onartzeko ekimena. c. Orotariko eraikuntzak eta urbanizazioak birgaitzeko proiektuak idaztea. d. Birgaitzeko jardunetako obrak egitea, eta Birgaitzeko Plan Orokorrek gauzatzea edo beste edozein hirigintza-tresna gauzatzea eragingo duten obrak egitea. e. Birgaitzeko Plan Orokorren zehaztapenak edo beste edozein hirigintza-tresnaren zehaztapenak gauzatzeko asmoz, lurzoruen programazioa eta prestaketa sustatzea. f. Desjabetzeko espedienteak idazten eta kudeatzen laguntzea, onuraduna bera ez denean. g. Birgaitzeko Plan Orokorrek

 Donostiako Etxegintza Entidad Pública Empresarial de Vivienda	
Administrazio Kontseiluak onartua.	Aprobado por el Consejo de Administración.
2012 JUL 27	
Kontseiluko Idazkaria El/La secretario/a del Consejo 	

gauzatzearen edo beste edozein hirigintza-tresna gauzatzearen ondoriozko ofotariko ondasunak, obrak eta zerbitzuak kudeatzea, ustiatzea eta kontserbatzea, betiere esleitutako zonei edo sektoreei dagokienez. h. Dagozkion ahalmenez baliatzeko, Entitateak behar duen edozein dokumentu tekniko edo juridiko lantzea. i. Adierazitako xedeekin zuzenean lotzen den beste edozein xede.

- d) Ondare eraikia birgaitzearen alde egitea.
- e) Haren titulartasuneko edo udal titulartasuneko eraikinak eta gainerako ondasun higiezinak administratzea, kontserbatzea, mantentzea eta birgaitzea.
- f) Lurzorua edozein titulu bidez eskuratzea.
- g) Azterlanak egitea eta proiektuak eta planak idaztea..
- h) Hitzarmenak egitea bestelako administrazioekin edo partikularrekin.
- i) Sozietateak edo enpresak bere aldetik edo beste entitate pribatu edo publiko batzuekin sustatzea edo eratzea.
- j) Helburu horietarako esleitzen zaizkion zerbitzuak edo bestelako jarduerak egitea.

Sektore publikoaren kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 Legearen Legegintzako Errege Dekretuaren ondorioetarako (aurrerantzean, SPKLTB edo Legea), Donostiako Etxegintza enpresa-entitate publikoa sektore publikoaren barruan sartzen da, eta, administrazio publikoa ez bada ere, “botere esleitzaile” gisa hartzeko ezaugarri guztiak betetzen ditu (Legearen 3.2. artikuluan aurreikusten den bezalaxe), eta, horrenbestez, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean ondorio horietarako aurreikusten diren aginduak izango dira aplikatzekoak.

Legearen arabera, Donostiako etxegintza enpresa-entitate publikoak egiten dituen kontratu guztiak kontratu pribatuak izango dira, 20.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Izan ere, artikulua horrek ezartzen duenez, administrazio publikoko baldintzak betetzen ez dituzten sektore publikoko erakundeek, entitateek eta organismoek egiten dituzten kontratuak kontratu pribatutzat joko dira.

Donostiako Etxegintza enpresa-entitate publikoak egiten dituen kontratuak honako kategoria hauetan sailkatuko dira:

1. **Legearen mende ez dauden kontratuak**, hau da, ordenamendu juridiko pribatuaren edo, hala badagokio, aplikatzekoak zaizkion arau berezien mende daudenak. SPKLTBren 4. artikuluan deskribatutako kontratuak dira (jarraibide

 Doi: ako Etxegi Entidad Pública Em. al de Vivienda	
Administrazio Kontseiluak onartua.	Aprobado por el Consejo de Administración.
2012 96L: 27	
Kontseiluko Idazkaria El/La secretario/a del Consejo 	

hauen I. Eranskin gisa txertatu da 4. artikulua hori). **Ez zaizkie aplikatzekoak honako jarraibide hauek.**

2. **Legearen mende dauden kontratuak, erregulazio harmonizatuko izaerarik ez dutenak.** Kontratu guztiak dira, hurrengo kategoriakoak izan ezik. **Jarraibide hauen B atalean** aurreikusten dena izango zaie aplikatzekoa.
3. **Legearen mende dauden kontratuak, erregulazio harmonizatuko izaera dutenak.** Orokorrean definitzen direnak (13. artikulua), zein kontratu-mota bakoitzerako xehetasunez definitzen direnak (14tik 17ra bitarteko artikulua). **Jarraibide hauen C atalean** aurreikusten dena izango zaie aplikatzekoa. Honako kontratuak dira:

- Obra-kontratuak, 4.845.000 euroko balioa edo balio handiagoa dutenak¹.
- Hornidura-kontratuak, 193.000 euroko balioa edo balio handiagoa dutenak¹.
- Zerbitzu-kontratuak, SPKLren II. Eranskineko 1etik 16ra bitarteko kategorietan sartzen direnak eta 193.000 euroko balioa edo balio handiagoa dutenak¹.

Zenbateko horiek BEZ gabeko zenbatekoak dira.

Zenbatekoa edozein izanik ere, ez dira inola ere erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak izango SPKLTBren 13.2. artikuluan deskribatutakoak (jarraibide hauen II. Eranskin gisa txertatu da 13.2. artikulua hori), ezta SPKLTBren II. Eranskineko 17tik 27ra bitarteko kategorietako zerbitzu-kontratuak ere.

B. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE EZ DAUDEN KONTRATUAK

Honako kontratuak dira:

- Obra-kontratuak, 4.845.000 euro baino balio txikiagoa dutenak.
- Hornidura-kontratuak, 193.000 euro baino balio txikiagoa dutenak.
- Zerbitzu-kontratuak, SPKLren II. Eranskineko 1etik 16ra bitarteko kategorietan sartzen direnak eta 193.000 euro baino balio txikiagoa dutenak.

¹ Edo Europako Batzordeak, aurrerantzean finkatzen duen zenbatekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusten denaren arabera



Zenbateko horiek BEZ gabeko zenbatekoak dira.

- Zerbitzu-kontratuak, SPKLTBren II. Eranskineko 17tik 27ra bitarteko kategorietan sartzen direnak eta 13.2 . artikuluko kontratuak, edozein zenbatekoak izanik ere.

I. Orokorrean aplikatu beharreko arauak

1. KONTRATAZIO ORGANOA

Donostia Etxegintza enpresa-entitate publikoaren Estatutuek eta aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauak eraenduko dute kontratatze ahalmena.

Honakoa da kontratazio-organoa:

- a) Administrazio Kontseilua, baldin eta kontratuen balio zenbatetsia prozedura negoziatuaren zenbateko-mugen parekoa bada edo zenbateko horren gainetik badago, betiere organo horrek presidenteari eta/edo gerenteari jarraibide hauetan horietarako ezarritako zenbatekoko edo zenbateko handiagoko gastuak egiteko eman diezazkiekeen ahalmenen kalterik gabe.
- b) Presidentea, baldin eta kontratuen balio zenbatetsia prozedura negoziatuaren zenbateko-muga baino txikiagoa bada.
- c) Zuzendari-gerentea, baldin eta kontratuen balio zenbatetsia kontratu txikirako zenbateko-muga baino txikiagoa bada.

Kontratazio-organoak kontratuaren inguruko jardun zehatzak egiteko egoki iruditzen zaion pertsona ahalmenu ahal izango du kasuak kasu.

2. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Donostiako Etxegintza enpresa-entitate publikoarekin kontrata dezakete honako eskakizunak betetzen eta egiaztatzen dituzten kontratistek:

2.1. Gaitasun-baldintzak



Legearen 54. artikuluan aurreikusten direnak izango dira.

Legearen 55. artikulua (Europako Erkidegokoak ez diren enpresetarako) eta 56. artikulua (bateragarritasuneko baldintza bereziei buruzkoa) izango dira aplikatzekoak.

2.2. Ahalmena

Legearen honako artikuluetan eskatzen den ahalmena izango da: 57. artikuluan (pertsona juridikoen ahalmena), 58. artikuluan (Europako Erkidegoko enpresen ahalmena) eta 59. artikuluan (enpresaburuen elkarteen ahalmena).

Legearen 72. artikuluan ezartzen den moduan egiaztatuko da ahalmena.

2.3. Kontratatzeko debekurik ez izatea

Kontratatzeko debekuei buruzko 60.1. artikulua eta kontratatze debeku horiek ez dagozkiola frogatzeko moduei buruzko 73. artikulua aplikatuko dira.

2.4. Kaudimenaren gutxieneko baldintzak.

Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoko edo profesionaleko gutxieneko baldintzak –kasuak kasu– klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan ezarriko dira, eta bertan ezarritako moduan egiaztatuko dira.

Plegu horretan, kaudimena justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak ez ezik, kaudimen hori egiaztatze gutxieneko atalaseak ere identifikatuko dira.

Honako artikulua aplikatuko dira: 62. artikulua (kaudimenaren eskakizuna), 63. artikulua (kaudimena kanpoko bitartekoekin integratzea) eta 64. artikulua (kaudimen-baldintzen zehaztapena).



2.5. Sailkapena

Klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan aurreikusten den kasuetan soilik eskatuko da administrazio-sailkapena.

3. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

3.1. Kontratuaren xedea

Erakunde-xedeak betetzeko eta gauzatzeko beharrezkoak direnean egingo ditu kontratuak Donostiako Etxegintza enpresa-entitate publikoak. Zehatz-mehatz finkatuko dira proiektatutako kontratuaren bidez estali nahi diren premien izaera eta hedadura, eta premia horiek asetzeko xedearen eta edukiaren egokitasuna. Edonola ere, prestakuntza-dokumentazioan jasoaraziko da hori guztia.

Legearen 86. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da kontratuaren xedea.

3.2. Kontratuaren iraupena

Donostiako Etxegintza enpresa-entitate publikoak honako alderdi hauek hartuko ditu aintzat kontratuaren iraupena finkatzean: zerbitzugintzaren izaera, finantziazioaren ezaugarriak, eta zerbitzugintza aldian behin konkurrentziaren mende jartzeko beharra. Ondorio horretarako, 23. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

Egin daitezkeen luzapenak klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan aurreikusiko dira espresuki.

Zuzeneko esleipenaren ondoriozko 50.000 eurotik beherako zenbatekoa duten obra-kontratuek eta 18.000 eurotik beherako zenbatekoa duten bestelako kontratuek (BEZ kanpo) urtebeteko iraupena izango dute gehienez, eta ezin izango dira luzatu.

3.3. Prezioa



Kontratuaren prezioari, zenbatetsitako balioaren kalkuluari eta lizitazio-aurrekontua zehazteari buruzko 87. eta 88. artikuluen arauak aplikatuko dira, betiere Herri Administrazio bat ez izatearen ondoriozko egokitzapenekin.

Klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan aurreikusten diren kasuetan soilik berraztertuko dira prezioak.

4. KONTRATUA PRESTATZEA

4.1. Eskaera

Zuzeneko esleipena bidezkoa denean izan ezik, kontratazioari hasiera emateko, jarraibide hauen III. Eranskin gisa gaineratzen den formularioa bete beharko dute Donostiako Etxegintza enpresa-entitate publikoko barneko langileek. Formulario horretan jasoaraziko dira proiektatutako kontratuaren bidez estali nahi diren premien izaera eta hedadura, eta premia horiek asetzeko xedearen eta edukiaren egokitasuna.

4.2. Pleguak

Nahitaezkoa izango da 50.000 euroko zenbatekoa (BEZ kanpo) gainditzen duten kontratu guztietan Plegu bat lantzea. Obra-kontratuaz bestelako kontratuetan ere Plegua landu ahal izango da –Kontratazio Organoak erabakitzen duenaren arabera–, betiere kontratuaren zenbatekoa 18.000 eurotik gorakoa (BEZ kanpo) denean.

Zenbateko hori gainditzen duten kontratuetan, klausula ekonomiko eta administratiboen pleguarekin batera baldintza teknikoaren plegua ere aurkeztu beharko da –baldintza teknikoaren plegua Entitateko langile teknikoek idatziko dute–.

Klausula ekonomiko eta administratiboen plegua eta baldintza teknikoaren plegua kontratazio-organoak onartu beharko ditu.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, lan-kontratuak subrogatzeko baldintzen berri emango da, betiere Sektore Publikoaren



Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 120. artikuluan aurreikusten denaren arabera.

200.000 euroko zenbatekoa edo zenbateko handiagoa duten obra-kontratuak lizitatzean, eta 60.000 eurotik gorako zenbatekoa duten obra-kontratuez bestelako kontratuak lizitatzean, berraztertu egingo dira plegu horiek, eta txosten juridikoaren mende egongo dira.

Obra-kontratuetan, halaber, dagokion obra-proiektua landuko da, eta, hala badagokio, baldintza teknikoen plegua ordezkatu ahal izango du.

SPKLTBren II. Eranskinetik 17tik 27ra bitarteko kategorietan sartzen diren zerbitzu-kontratuak, 193.000 euroko zenbatekoa edo zenbateko handiagoa dutenak, SPKLTBren 137.1. artikuluan aurreikusten denaren mende egongo dira.

5. KONTRATUA EGITEA

Kontratua formalizatuta gauzatuko da, eta hori idatziz egingo da.

Bidezkoa izateagatik, kontratuaren zuzeneko esleipenera jotzen bada, kontratuaren formalizazioa dagokion aurrekontua jaulkitzera eta kontratazio-organoaren onarpen idatziaren komunikaziora mugatu ahal izango da.

Klausula ekonomiko eta administratiboen plegua landu ezean, sinatzen den kontratuak nahitaez hartu beharko ditu barnean Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 26. artikuluan adierazitako aipamenak.

Kontratuan ez dira, inola ere, barne hartuko Pleguetan aurreikusten direnez bestelako eskubideak eta betebeharrak, betiere aurkeztutako eskaintzaren ondoriozko zehaztapenekin eta esleipen-egintzaren doitasunekin.

6. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratuaren ondorioei eta iraungipenari dagokionez, Pleguetan aurreikusten diren terminoak aplikatuko dira, eta, hala erabakitzen bada, Herri Administrazioen kontratazio-araudira jo ahal izango da. Aurrekoaren ordezkotza, zuzenbide zibilean aurreikusitakoa aplikatuko da. Kontratuaren



aldaketari dagokionean, edonola ere, SPKLTBren I. Liburuko V. Tituluan xedatutakoa izango da aplikatzekoa (105., 106., 107. eta 108. artikulua).

Haatik, eta SPKLTBren 227.9. artikuluan aurreikusten denaren arabera, Enpegu Entitate Publikoak egindako kontratuen mende dauden zerbitzugintzen kontratazioetan SPKLTBren 227. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio. Nolanahi ere, artikulua horretan egiten den kontratatzeke debekuei buruzko erreferentzia mugatuta dago SPKLTBren 60.1. artikuluan zerrendatzen direnetara.

II. Plegua

Klausula ekonomiko eta administratiboen pleguak honako alderdi hauek eduki beharko ditu, prozedura negoziatuaren berezko berezitasunekin:

- Kontratazio-organoa.
- Publizitatea, kontratugile-profilera sartzeko modua eta publizitate-gastuak.
- Kontratuaren xedea, eta, hala badagokio, loteak
- Kontratuaren bitartez ase beharreko premiak eta aintzat hartu beharreko askotariko faktoreak.
- Lizitazioko oinarrizko aurrekontua eta, hala badagokio, urteko zenbatekoen araberrako banaketa.
- Kontratuko dokumentazioa.
- Kontratuaren iraupena, luzapenak zehaztuz, halakorik badago.
- Kontratua esleitzeko prozedura: prozedura irekia, mugatua edo negoziatua.
- Proposamenen aurkezpena:

Aurkezteko modua.

Forma eta edukia (aurkeztu beharreko dokumentazioa)

Aurkezteko epea eta tokia.

 Donostiako Etxegintza Entidad Pública Empresarial de Vivienda	
Administrazio Kontseiluak onartua.	Aprobado por el Consejo de Administración.
2012 UZT: 27	
Kontseiluko Idazkaria El/La secretario/a del Consejo	
	

▪ Kontratista:

Ahalmena.

Gaitasun-baldintzak.

Kontratatzeko debekuak.

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa (dokumentuak eta gutxieneko atalaseak).

Kaudimen teknikoa eta profesionala (dokumentuak eta gutxieneko atalaseak).

▪ Ebaluazioa eta esleipena:

Esleitzeko irizpideak eta haztapena edo, prozedura negoziatua denean, negoziatu beharreko alderdiak, eta hala badagokio esleitzeko irizpideak eta horien haztapena.

Onartutako proposamenak irekitzea.

Proposamenak ebaluatzea eta ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena hautatzea.

Kontratua esleitzea eta esleipena jakinaraztea.

- Esleipendunak aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epea.
- Kontratuaren formalizazioa eta epea.
- Aldeen eskubideak eta betebeharrak.
- Kontratua hartzea eta kontratatutako zerbitzugintzaren bermearen epea.
- Prezioaren ordainketen erregimena.
- Kontratua suntsiarazteko kausak.
- Erregimen juridikoa eta jurisdikzioa.

Horrez gain, klausula ekonomiko eta administratiboen pleguak honako alderdi hauek ere jaso beharko ditu:



- Finantziazioa.
- Aldaerak edo hobekuntzak: onartzen diren edo ez diren adierazpena, betiere onartzen diren kontratuaren baldintzak, mugak, modalitateak eta alderdiak adieraziz.
- Prezioak berraztertzea (aplika daitekeen formula edo indize ofiziala adieraziz), Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 87. artikulua 3. puntuan ezarritakoaren arabera.
- Behin-behineko edo behin betiko bermeak.
- Sailkapena.
- Ahalmenaren eta kaudimenaren eskakizunak betetzearen egiaztatzeak aztertu diren data.
- Kontratuaren aldaketa: kontratua aldatzeko aukerarik dagoen eta zer baldintzatan alda daitekeen.
- Kontratistari ezarritako konfidentzialtasun-betebeharraren iritsiera, denboran eta helburuetan.
- Lagapena eta azpikontratazioa: kontratua lagatzeko baldintzak adieraztea eta zerbitzugintzak identifikatzea, edo kontratistak kontrata dezakeen zerbitzugintzen ehunekoa identifikatzea (SPKLTBren 226.2.c. eta 227.5. artikuluei dagokienez).
- Atzerapenen ondoriozko eta gauzatze akastunaren ondoriozko zigorrak.
- Ordenamendu juridikoaren aurkakoa ez den beste edozein itun, klausula eta baldintza.

III. Esleitzeko prozedurak

SPKLTBren 191. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, kontratu moten eta zenbatekoen araberako esleipen-prozedurak emango dira aditzera.

Ondoren aditzera emango denaren kalterik gabe, kontratazio-organoak lehiarako elkarriketa-prozedurara jo ahal izango du, betiere 179. artikulutik



183. artikulura bitartean aurreikusten diren suposizioetan eta bertan adierazten diren ondorioekin.

Era berean, kontratazioa arrazionalizatzeko sistemetara jo ahal izango du (esparru-akordioak, kontratazio-sistema dinamikoak, eta kontratazio-zentralak). Hala eginez gero, 196. artikulutik 205. artikulura bitartean erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuatarako aurreikusten dena bete beharko da.

1. OBRA KONTRATUAK

1.1. Zenbatekoen arabera bereizketa

Obra-kontratuari dagokionez, obraren zenbateko ekonomikoaren arabera hiru prozedura bereiziko dira. Horrela:

- a) 49.999,99 eurora arteko zenbatekoa duen obra-kontratua.
- b) 50.000 euro eta 999.999,99 euro arteko zenbatekoa duen obra-kontratua.
- c) 1.000.000 euro eta 4.844.999,00 euro arteko zenbatekoa duen obra-kontratua².

Zenbateko horiek BEZ gabeko zenbatekoak dira.

1.2. 49.999,99 eurora arteko zenbatekoa duen obra-kontratua

Mota horretako kontratuetan, oro har, **zuzeneko esleipenera** joko da. Bidezko aurrekontua eskatuko da, eta, kontratazio-organoak onartu ostean, dagokion kontratua sinatuko da. Nolanahi ere, nahikoa izan daiteke aurrekontu hori onartzen dela espresuki eta idatziz adieraztea (aurkeztutako aurrekontua bera sinatzearen bidez bideratu ahal izango da onarpena). Kontratua bete dela egiaztatu ondoren ordainduko da prezioa.

² Edo Europako Batzordeak aurrerantzean finkatzen duen zenbatekoa, SPKLren Hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusten denaren arabera.



Kontratua bete dela egiaztatu ondoren ordainduko da prezioa. Dena den, aurretik kontratistak faktura aurkeztu beharko du, eta faktura hori onartu egin beharko da.

Haatik, prozedura negoziatu ireki edo mugatura ere jo ahal izango da, eta kasu horretan hurrengo idatz zatian xedatzen dena izango da aplikatzekoa.

1.3. 50.000 euro eta 999.999,99 euro arteko zenbatekoa duen obra-kontratua.

Mota horretako kontratuetan, **prozedura negoziatu, ireki edo mugatu** bidez esleituko da kontratua. Hautatutako prozedura zehatza jasoarazi beharko da klausula ekonomiko eta administratiboen orrian.

1.3.1. Prozedura negoziatua

Prozedura negoziatuaren aldeko hauta eginez gero, honako izapideak bete beharko dira:

- a) **Eskaera:** kontratazioaren eskaera egiteko, Donostia Etxegintza enpresa-entitate publikoko barneko langileek bete egin beharko dute jarraibide hauen III. Eranskin gisa gaineratzen den formularioa.
- b) **Eskaintzen eskaera:** kontratuaren xedea betetzeko ahalmena duten hiru enpresari, gutxienez, eskatuko zaizkie eskaintzak.
- c) **Pleguak:** klausula ekonomiko eta administratiboen plegu bat (jarraibide hauen II. epigrafeko B idatz zatian aurreikusten den edukiarekin), baldintza teknikoen plegu bat, edo dagokion obra-proiektua landuko da.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, lan-kontratuak subrogatzeko baldintzen berri emango da, betiere Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 120. artikuluan aurreikusten denaren arabera.

Dokumentu horiek berraztertu egingo dira, edo txosten juridikoaren mende egongo dira, baldin eta kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa bada.



Kasu guztietan, kontratazio-organoak onartu beharko ditu.

- d) **Publizitatea:** kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa denean, kontratugile-profilean eman beharko da argitara kontratuaren lizitazioa eta esleipena,

betiere idatz zati honen f) letran aurreikusten denaren kalterik gabe.

- e) **Ebaluazioa:** klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan zehaztuko dira enprekin negoziatu beharreko alderdi ekonomikoak eta teknikoak.

Entitatearen langile teknikoek esleipen-proposamen arrazoitua aurkeztuko dute, eta bertan jasoaraziko dira egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoiak, eta egindako negoziazioak.

200.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuetan, berriz, txosten juridikoaren mende egongo da esleipen-proposamena.

- f) **Beste aplikazio-suposizio batzuk:** Legearen 170. eta 171. artikuluetan –a), b) eta c) idatz zatietan– aurreikusten diren kontratuetan ere prozedura negoziatura jo ahal izango da, kontratuaren zenbatekoa edozein izanik ere.

Kasu horietan, kontratugile-profilean lizitazio-iragarkia baino ez da emango argitara, betiere 170. artikuluko a) eta b) idatz zatiko suposizioetan eta 171. artikuluko a) idatz zatiko suposizioetan.

Klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan, edo jarraibide hauetan bertan espresuki aurreikusten ez diren alderdietan, Legearen 151. artikuluan –1, 2, eta 3 idatz zatietan–, 169. artikuluan, 176. artikulua, 177. artikuluan eta 178. artikuluan ezarritakoa izango da aplikatzekoa, baita, adierazitako artikulua horiek igorrita, aplikatzekoak izan daitezkeen beste artikulua batzuetan ezarritakoa ere. Edonola ere, Herri Administrazio bat ez izatearen ondorioz, beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira.

1.3.2. Prozedura irekia edo mugatua

 Donostiako Etxegintza Entidad Pública Empresarial de Vivienda	
Administrazio Kontseiluak onartua.	Aprobado por el Consejo de Administración.
2012 JUL: 27	
Kontseiluko Idazkaria El/La secretario/a del Consejo	

50.000 eta 999.999,99 euro arteko zenbatekoa duten obra-kontratuetan, prozedura negoziatu ireki edo mugatura jotzen bada, hurrengo idatz zatian xedatzen dena izango da aplikatzekoa, publizitateari buruzko c) paragrafoan ezarritakoaren salbuespenarekin. Azken kasu horretan, publizitatearen printzipioaren ondoriozko eskakizuna betetzat joko da kontratuaren lizitazioaren, esleipenaren eta formalizazioaren iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzearekin. Nolanahi ere, kontratuaren edukia 100.000 eurotik gorakoa denean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere eman beharko da argitara formalizazioa.

Era berean, klausula ekonomiko eta administratiboen plegua, baldintza teknikoaren plegua, edo dagokion obra-proiektua ez dira berraztertuko, eta ez dira txosten juridiko baten mende izango, kontratuaren zenbatekoa 200.000koa edo txikiagoa bada.

1.4. 1.000.000 euro eta 4.844.999,00 euro arteko zenbatekoa duen obra-kontratua.

Mota horretako kontratuetan, **prozedura ireki edo mugatu** bidez esleitu da kontratua. Hautatutako prozedura zehatza jasoarazi beharko da klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan.

Prozedura irekiaren zein **mugatuaren** aldeko hauta egiten bada, honako arauak hartu beharko dira aintzat:

- a) **Eskaera:** kontratazioaren eskaera egiteko, Donostia Etxegintza enpresa-entitate publikoko barneko langileek bete egin beharko dute III. Eranskin gisa gaineratzen den formularioa.
- b) **Pleguak:** klausula ekonomiko eta administratiboen plegu bat (jarraibide hauen II. epigrafeko B idatz zatian aurreikusten den edukiarekin), baldintza teknikoaren plegu bat, edo dagokion obra-proiektua landuko da.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, lan-kontratuak subrogatzeko baldintzen berri emango da, betiere Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 120. artikuluan aurreikusten denaren arabera.

Dokumentu horiek berraztertu egingo dira, edo txosten juridikoaren mende egongo dira.

 Donostiako Etxegintza Entidad Pública Empresarial de Vivienda	
Administrazio Kontseiluak onartua.	Aprobado por el Consejo de Administración.
2012 UZT: 27	
Kontseiluko Idazkaria El/La secretario/a del Consejo	

[Signature]

Kasu guztietan, kontratazio-organoak onartu beharko ditu.

- c) **Publizitatea:** lizitazioa argitaratu eman beharko da, gutxienez, kontratugile-profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, edo kontratugile-profilean eta probintziako egunkari batean. Bestalde, egin den aukera zehatza eman beharko da aditzera klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan.
- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan zehaztuko da proposamenak aurkezteko epea; alabaina, ez da inoiz hogeita sei (26) egun baino gutxiagoko epea izango. Haatik, kontratazio-organoaren iritziz, epea murriztea justifikatuko duten zirkunstantzia bereziak gertatzen direnean, laburragoa izan daiteke epea.
- e) **Proposamenak aurkezteko modua:** proposamenak sekretuak izango dira, eta gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan zehazten den moduan.
- f) **Ebaluazioa:** kontratazio-organoak zehaztuko ditu kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, baita horien haztapena ere. Iragarkian eta klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan adieraziko dira.

Kontratuaren xedearekin zuzenean lotzen diren irizpideak izan daitezke, hala nola kalitatea, prezioa, obraren erabileraren ondoriozko ordainsariak berraztertzeke erabil daitezkeen formula, zerbitzugintza gauzatzeko edo egiteko epea, erabiltzearen kostua, ingurumen-ezaugarriak, gizarte-eskakizunekin lotzen diren ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, ordezeko piezen eskuragarritasuna eta kostua, mantentze-lanak, laguntza teknikoa, salmenta-osteko zerbitzua, eta antzeko beste batzuk.

Aurkeztutako proposamenak ebaluatzeke txosten objektiboa egiteaz eta kontratazio-organoari esleipen-proposamena luzatzeaz arduratuko den Batzorde bat eratzea hartuko da aintzat klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan –Batzorde horren ahalmenak ere finkatuko dira bertan–. Esleipen proposamen horretan, aurkeztutako proposamenen zerrenda jasoko da, ordena beharokorrean sailkatuta, betiere normalak ez direnak edo proportzioz kanpo daudenak izan ezik –horretarako klausula ekonomiko administratiboen pleguan aurreikusitako proposamenak baloratzeko irizpideak hartuko dira kontuan–.



Horrez gain, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena ere identifikatuko da.

200.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuetan, esleipen-proposamenarekin batera txosten juridikoa ere egingo da, baldin eta batzordean aholkularitza teknikoa barne hartu ez bada.

Kontratazio-organoak ekonomikoki eskaintzarik onuragarrienari esleitu dio kontratua, betiere klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan aurreikusitako balorazio-irizpide objektiboen arabera, eta esleipen-proposamenaren arabera.

Kontratazio-organoak kontratua formulatutako proposamenari jarraituz esleitu ezean, arrazoitu egin beharko du erabaki hori.

Esleipena kontratugile-profilean emango da argitara.

Plegu horretan edo honako jarraibide hauetan espresuki aurreikusten ez diren alderdietan, berriz, honako artikuluetan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa:

- Prozedura ireki eta mugaturako, 151. artikuluan, 1,2 eta 3 idatz zatietan aurreikusitakoa.
- Prozedura irekirako, 157. artikuluan, 158. artikuluan, 160. artikuluan (ez da inoiz aplikatzekoa izango adituen batzordearen edo organismo tekniko espezializatuaren arloan aurreikusten dena) eta 161. artikuluan aurreikusitakoa.
- Prozedura mugaturako, 162., 163., 165., 166., 167. eta 168. artikuluetan ezarritakoa, baita, adierazitako artikuluek igorrita, aplikatzekoak izan daitezkeen beste artikuluek batzuetan ezarritakoa ere. Bi kasu horietan, Herri Administrazioa ez izatearen ondorioz egin beharreko egokitzapenak izan beharko dira aintzat.

2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUAK ETA BESTE BATZUK)

2.1. Zenbatekoen arabera bereizketa



Kontratu horiei dagokionez (hornidura, zerbitzuak eta beste batzuk), zenbateko ekonomikoaren arabera hiru prozedura bereiziko dira. Horrela:

- a) 17.999,99 eurora arteko zenbatekoa duen kontratua.
- b) 18.000 euro eta 99.999,99 euro arteko zenbatekoa duen kontratua.
- c) Hornidura eta zerbitzuetako kontratuak, 100.000 euro eta 192.999 euro arteko zenbatekoarekin³, eta gainerako kontratuak, zenbatekoetan mugarik gabe.

Zenbateko horiek BEZ gabeko zenbatekoak dira.

2.2. 17.999 eurora arteko zenbatekoa duen kontratua

Mota horretako kontratuetan, oro har, **zuzeneko esleipenera** joko da. Bidezko aurrekontua eskatuko da, eta, kontratazio-organoak onartu ostean, dagokion kontratua sinatuko da. Nolanahi ere, nahikoa izan daiteke aurrekontu hori onartzen dela espresuki eta idatziz adieraztea.

Kontratua bete dela egiaztatu ondoren ordainduko da prezioa. Dena den, aurretik kontratistak faktura aurkeztu beharko du, eta faktura hori onartu egin beharko da.

Haatik, prozedura negoziatu ireki edo mugatura ere jo ahal izango da, eta kasu horretan hurrengo idatz zatian xedatzen dena izango da aplikatzekoa.

2.3. 18.000 euro eta 99.999,99 euro arteko zenbatekoa duen kontratua.

Mota horretako kontratuetan, **prozedura negoziatu, ireki edo mugatu** bidez esleituko da kontratua. Hautatutako prozedura zehatza jasoarazi beharko da klausula ekonomiko eta administratiboen orrian. Halakorik izan ezean, kontratazio-organoaren erabaki espresu bidez egingo da hautaketa.

³ Edo Europako Batzordeak, aurrerantzean finkatzen duen zenbatekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusten denaren arabera.



2.3.1. Prozedura negoziatua

Prozedura negoziatuaren aldeko hauta eginez gero, honako izapideak bete beharko dira:

- a) **Eskaera:** kontratazioaren eskaera egiteko, Donostia Etxegintza enpresa-entitate publikoko barneko langileek bete egin beharko dute jarraibide hauen III. Eranskin gisa gaineratzen den formularioa.
- b) **Eskaintzen eskaera:** kontratuaren xedea betetzeko ahalmena duten hiru enpresari, gutxienez, eskatuko zaizkie eskaintzak.
- c) **Pleguak:** klausula ekonomiko eta administratiboen plegu bat (jarraibide hauen II. epigrafeko B idatz zatian aurreikusten den edukiarekin) eta baldintza teknikoaren plegu bat landuko da.

Kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurokoa edo txikiagoa denean, Pleguak egitea aukerabidezkoa izango da.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian emango da lan-kontratuak subrogatzeko baldintzen berri, kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean, betiere Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 120. artikuluan aurreikusten denaren arabera.

Dokumentu horiek berraztertu egingo dira, edo txosten juridikoaren mende egongo dira, baldin eta kontratuaren zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa bada.

Kasu guztietan, kontratazio-organoak onartu beharko ditu.

- d) **Publizitatea:** kontratuaren zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa denean, kontratugile-profilean eman beharko da argitara kontratuaren lizitazioa eta esleipena,

betiere idatz zati honen f) letran aurreikusten denaren kalterik gabe.



- e) **Ebaluazioa:** klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan –edo, halakorik izan ezean, eskaintzaren eskaeran– zehaztuko dira enpresekin negoziatu beharreko alderdi ekonomikoak eta teknikoak.

Entitatearen langile teknikoek esleipen-proposamen arrazoitua aurkeztuko dute, eta bertan jasoaraziko dira egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoiak, eta egindako negoziazioak.

60.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuetan, berriz, txosten juridikoaren mende egongo da esleipen-proposamena.

- f) **Beste aplikazio-suposizio batzuk:** Legearen 170. artikuluan, 173. artikuluan –a), b) eta c) idatz zatietan–, 174. artikuluan –a), b), c), d) eta e) idatz zatietan– eta 175. artikuluan aurreikusten diren kontratuetan ere prozedura negoziatura jo ahal izango da, kontratuaren zenbatekoa edozein izanik ere.

Kasu horietan, kontratugile-profilean lizitazio-iragarkia baino ez da emango argitara, betiere 170. artikuluko a) eta b) idatz zatiko suposizioetan, 174. artikuluko a) idatz zatiko suposizioetan, eta 175. artikuluko suposizioetan (zenbatekoagatik prozedura negoziatura jotzen denean, eta zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa bada).

Klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan edo jarraibide hauetan bertan espresuki aurreikusten ez diren alderdietan, Legearen 151. artikuluan –1, 2 eta 3. idatz zatietan–, 169. artikuluan, 176. artikuluan, 177. artikuluan, eta 178. artikuluan ezarritakoa izango da aplikatzekoa, baita, adierazitako artikuluko horiek igorrita, aplikatzekoak izan daitezkeen beste artikuluko batzuetan ezarritakoa ere. Edonola ere, Herri Administrazio bat ez izatearen ondorioz, beharrezkoak diren egokitzapenak egin beharko dira.

2.3.2. Prozedura irekia edo mugatua

18.000 eta 99.999,99 euro arteko zenbatekoa duten gisa honetako kontratuetan (hornikuntzak, zerbitzuak eta abar), prozedura negoziatu ireki edo mugatura jotzen bada, hurrengo idatz zatian xedatzen dena izango da aplikatzekoa, publikizitatearekiko buruzko c) paragrafoan

 Donostiako Etxegintza Entidad Pública Empresarial de Vivienda	
Administrazio Kontseiluak onartua.	Aprobado por el Consejo de Administración.
2012 UZT: 27	
Kontseiluko Idazkaria El/La secretario/a del Consejo	
	

ezarritakoaren salbuespenarekin. Azken kasu horretan, ~~publizitatearen~~ printzipioaren ondoriozko eskakizuna betetzat joko da kontratuaren lizitazioaren, esleipenaren eta formalizazioaren iragarkia kontratugilearen profilean argitaratzearekin.

Era berean, klausula ekonomiko eta administratiboen plegua, baldintza teknikoaren plegua, edo dagokion obra-proiektua ez dira berraztertuko, eta ez dira txosten juridiko baten mende izango, kontratuaren zenbatekoa 60.000koa edo txikiagoa bada.

2.4. 100.000 euro eta 192.999 euro arteko zenbatekoa duen kontratua.

Mota horretako kontratuetan, **prozedura ireki edo mugatu** bidez esleitu da kontratua. Hautatutako prozedura zehatza jasoarazi beharko da klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan.

Prozedura irekiaren zein mugatuaren aldeko hauta egiten bada, honako arauak hartu beharko dira aintzat:

- a) **Eskaera:** kontratazioaren eskaera egiteko, Donostia Etxegintza enpresa-entitate publikoko barneko langileek bete egin beharko dute jarraibide hauei gaineratzen zaizkien III. Eranskin gisa gaineratzen den formularioa.
- b) **Pleguak:** klausula ekonomiko eta administratiboen orri bat (jarraibide hauen II. epigrafeko B idatz zatian aurreikusten den edukiarekin) eta baldintza teknikoaren orri bat landuko da.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, lan-kontratuak subrogatzeko baldintzen berri emango da, betiere Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 120. artikuluan aurreikusten denaren arabera.

Dokumentu horiek berraztertu egingo dira, edo txosten juridikoaren mende egongo dira, baita kontratazio-organoaren onarpenaren mende ere.

- c) **Publizitatea:** lizitazioa argitara emango da, gutxienez, kontratugile-profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, edo kontratugile-profilean eta probintziako egunkari batean –klausula



ekonomikoen eta administratiboen orrian, egin den aukera zehatza eman beharko da aditzera—.

- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan zehaztuko da proposamenak aurkezteko epea; alabaina, ez da inoiz hamabost (15) egun baino gutxiagoko epea izango. Haatik, kontratazio-organoaren iritziz, epea murritztea justifikatuko duten zirkunstantzia bereziak gertatzen direnean, laburragoa izan daiteke epea.
- e) **Proposamenak aurkezteko modua:** proposamenak sekretuak izango dira, eta gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan zehazten den moduan.
- f) **Ebaluazioa:** kontratazio-organoak zehaztuko ditu kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, baita horien haztapena ere. Iragarkian eta klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan adieraziko dira.

Kontratuaren xedearekin zuzenean lotzen diren irizpideak izan daitezke, hala nola kalitatea, prezioa, obraren erabileraren ondoriozko ordainsariak berraztertze erabil daitezkeen formula, zerbitzugintza gauzatzeko edo egiteko epea, erabiltzearen kostua, ingurumen-ezaugarriak, gizarte-eskakizunekin lotzen diren ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, ordezeko piezen eskuragarritasuna eta kostua, mantentze-lanak, laguntza teknikoa, salmenta-osteko zerbitzua, eta antzeko beste batzuk.

Aurkeztutako proposamenak ebaluatzeko txosten objektiboa egiteaz eta kontratazio-organoari esleipen-proposamena luzatzeaz arduratuko den Batzorde bat eratzea hartuko da aintzat klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan —Batzorde horren ahalmenak ere finkatuko dira bertan—.

60.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuetan, esleipen-proposamenarekin batera txosten juridikoa ere egingo da, baldin eta batzordean aholkularitza teknikoa barne hartu ez bada.

Kontratazio-organoak ekonomikoki eskaintzarik onuragarrienari esleitu dio kontratua, betiere klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan aurreikusitako balorazio-irizpide objektiboen arabera, eta esleipen-proposamenaren arabera.



Kontratazio-organoak kontratua formulatutako proposamenari jarraituz esleitu ezean, arrazoitu egin beharko du erabaki hori.

Esleipena kontratugile-profilean emango da argitara.

Plegu horretan edo honako jarraibide hauetan espresuki aurreikusten ez diren alderdietan, berriz, honako artikuluetan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa:

- Prozedura ireki eta mugaturako, 151. artikuluan, 1,2 eta 3 idatz zatietan aurreikusitakoa.
- Prozedura irekirako, 157. artikuluan, 158. artikuluan, 160. artikuluan (ez da inoiz aplikatzekoa izango adituen batzordearen edo organismo tekniko espezializatuaren arloan aurreikusten dena) eta 161. artikuluan aurreikusitakoa.
- Prozedura mugaturako, 162., 163., 165., 166., 167. eta 168. artikuluetan ezarritakoa, baita, adierazitako artikuluek igorrita, aplikatzekoak izan daitezkeen beste artikuluek batzuetan ezarritakoa ere. Bi kasu horietan, Herri Administrazioa ez izatearen ondorioz egin beharreko egokitzapenak izan beharko dira aintzat.

IV. Errekurtsoak

Kontratu horiek prestatu, esleitu, bete edo iraungitzearen arloko edo kontratuen ondorioen arloko edozein gairen aurrean, **jurisdikzio zibilari** soilik jarri ahal izango zaizkio errekurtsoak.

SPKLTBren II. eranskineko 17tik 27ra bitarteko kategorietan barnean hartzen diren eta 200.000ko zenbatekoa edo handiagoa duten zerbitzu-kontratuak prestatzeari eta esleitzeari dagozkion kasuetan, jarraibide hauetako IV. epigrafeko C idatz zatiko erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuetarako xedatutakoari jarraituko zaio.

Horrez gain, kontratuen ondorioen arloan edo kontratuak betetzearen eta iraungitzearen arloan sor daitezkeen desberdintasunak ebazteko, **arbitrajera** jo ahal izango da, abenduaren 23ko 60/2003 Legearen xedapenen arabera. Edonola ere, klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan jaso beharko da **arbitrajera** jotzeko aukera hori, edo, gisa horretako plegurik ez badago, beste edozein kontratu-dokumentutan jaso beharko da.



C. ERREGULAZIO HARMONIZATUAREN MENDE DAUDEN KONTRATUAK

Honako kontratuak dira:

- Obra-kontratuak, 4.845.000 euroko balioa edo balio handiagoa dutenak⁴.
- Hornidura-kontratuak, 193.000 euroko balioa edo balio handiagoa dutenak⁴.
- Zerbitzu-kontratuak, SPKLren II. Eranskineko 1etik 16ra bitarteko kategorietan sartzen direnak eta 193.000 euroko balioa edo balio handiagoa dutenak⁴.

Zenbateko horiek BEZ gabeko zenbatekoak dira.

Hori guztia 13.2. artikuluko kontratuen salbuespenarekin, ez baitira erregulazio harmonizatuaren mende egongo –horien balio zenbatetsia edozein izanik ere–.

I. Orokorrean aplikatu beharreko arauak

Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuei jarraibide hauen I. epigrafeko B idatz zatian erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuetarako aurreikusten dena izango zaie aplikatzekoa. Honako espezialitate hauekin:

1. ESPEZIALITATEAK, KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEI DAGOKIENEZ

1.1. Gaitasun-baldintzei dagozkien espezialitateak.

Legearen 54. artikuluan xedatutakoaz gain, 55. artikulua ere izango da aplikatzekoa (alde batera utziko da Merkataritzako Munduko

⁴ Edo Europako Batzordeak aurrerantzean finkatzen duen zenbatekoa, SPKLren Hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusten denaren arabera.



Erakundearen kontratazio publikoari buruzko akordioa sinatu duten Estatuetako enpresekiko elkarrekikotasunari buruzko txostena).

1.2. Gutxieneko kaudimen-baldintzei dagozkien espezialitateak.

Jarraibide hauetako B.I epigrafeko 2.4 idatz zatian xedatutakoaz gain, 74. artikulutik 79. artikulura bitarteko artikuluetan kaudimena egiaztatzeko moduei buruz xedatutakoa aplikatuko da.

1.3. Kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurumen-kudeaketako arauak betetzea

80. eta 81. artikulua aplikatuko dira kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurumen-kudeaketako arauak betetzen direla egiaztatzeari dagokionez.

Ondorio horretarako aurreikuspenak klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan ezarriko dira.

2. KONTRATUA PRESTATZEA

Baldintza teknikoak definitzeko eta ezartzeko, Legearen 117. artikuluan finkatutako arauak aplikatuko dira.

Honako artikulua hauetan xedatzen dena ere izango da aplikatzekoa: 118. artikuluan (kontratua gauzatzeko baldintza bereziak), 119. artikuluan (fiskalitatearen, ingurumen-babesaren, enpleguaren eta laneko baldintzen arloko betebeharrak buruzko informazioa) eta 120. artikuluan (lan-kontratuaren subrogazio-baldintzei buruzko informazioa).

Atzeratu ezin den premia bat asetzeko kontratua egitea beharrezkoa bada, edo interes publikoko arrazoiengatik esleipena bizkortu nahi bada, kontratazio-organismoak premiazkotzat jo ditzake izapideak –prestatzeko dokumentazioan behar bezala arrazoitu beharko du hori–. Hala egiten bada, epeak murrizteari buruzko Legearen 112.2.b) artikuluan aurreikusten dena aplikatuko da.



Klausula ekonomiko eta administratiboen plegua eta baldintza teknikoen plegua berraztertu egin beharko dira, eta txosten juridikoaren mende egongo dira, baita kontratazio-organoaren onarpenaren mende ere.

3. KONTRATUA GAUZATZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua behin betiko esleipenarekin gauzatuko da, eta idatziz formalizatuko da.

II. Plegua

Klausula ekonomiko eta administratiboen pleguak honako alderdi hauek zehaztu ahal izango ditu erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuatarako –betiere jarraibide hauen II. epigrafeko B epigrafean adierazitakoaz gain–:

- Kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurumen-kudeaketako arauak betetzen direla egiaztatzea (SPKLTBren 80. eta 81. artikuluek xedatzen duten moduan).
- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak eta ez betetzearen ondorioak (SPKLTBren 118. artikuluan aurreikusten den moduan).
- Fiskalitatearen, ingurumen-babesaren, enpleguaren eta lan-baldintzen arloko betebeharrei buruzko informazioa (SPKLTBren 119. artikuluan aurreikusten den moduan).

III. Esleitzeko prozedura

Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak SPKLTBren 190. artikuluan ezarritakoaren arabera esleitu dira, hau da, Herri Administrazioen kontratuatarako aurreikusten den bezalaxe, betiere honako egokitzapen hauekin:

- a) Ez da aplikatuko 150. artikuluan 2. idatz zatiko bigarren artikuluan ezarritakoa, irizpide subjektiboak baloratzeko adituen batzordearen esku-hartzeari dagokionez.



- b) Ez da aplikatuko 152. artikularen 1. eta 2. idatz zatietan ezarritakoa, eskaintzen izaera anormala edo proportzioz kanpokoa hautemateko irizpideei dagokienez.
- c) Ez da aplikatuko 156. artikuluan ezarritakoa, kontratuak formalizatzeari dagokienez.
- d) Ez da aplikatuko 160. artikuluan ezarritakoa, proposamenen azterketari eta esleipen-proposamenari dagokienez.
- e) Ez da aplikatuko 172. artikuluan ezarritakoa, zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozedura negoziatura jo daitezkeen suposizioei dagokienez.

Premia dela eta, Legeak ezartzen dituen gutxienerako epeak bete ezin direnean, epeak murrizteari buruzko 112.2.b) artikuluan aurreikusten dena aplikatuko da.


Aurkeztutako proposamenak ebaluatzeko txosten objektiboa egiteaz eta kontratazio-organoari esleipen-proposamena luzatzeaz arduratuko den Batzorde bat eratzea hartuko da aintzat klausula ekonomiko eta administratiboen pleguan –Batzorde horren ahalmenak ere finkatuko dira bertan–. Esleipen proposamen horretan, aurkeztutako proposamenen zerrenda jasoko da, ordena beherakorrean sailkatuta, betiere normalak ez direnak edo proportzioz kanpo daudenak izan ezik –horretarako klausula ekonomiko administratiboen pleguan aurreikusitako proposamenak baloratzeko irizpideak hartuko dira kontuan–. Horrez gain, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena ere identifikatuko da.

Esleipen-proposamenarekin batera txosten juridikoa ere egingo da, baldin eta batzordean aholkularitza teknikoa barne hartu ez bada.

Lizitatzailerei zuzendutako esleipenaren jakinarazpenak jasoko duen informazioa nahikoa izango da baztertutako lizitatzailak edo hautagaiak esleipen-erabaki horren aurka behar beste oinarritutako errekurtoa jartzeko, betiere SPKLTBren 40. artikularen arabera.

Zehazki, jakinarazpenak honako alderdi hauek emango ditu aditzera:

- a) Baztertutako hautagaiei dagokienez, haien hautagaia ezeztatzeak aintzat hartu diren arrazoiak azalpen laburtua.
- b) Esleipen-prozeduraz kanpo geratu diren lizitatzailak dagokienez, haien eskaintza ez onartzearen arrazoiak, hauek ere laburtuta.



- c) Edonola ere, esleipendunaren izena, ezaugarriak eta esleipendunaren proposamenaren abantaila adierazgarriak, hau da, proposamenak onartu zaizkien beste lizitatzailleek aurkeztutako proposamenen gainetik esleipendunaren proposamena lehentasunez hautatzea eragin dutenak.

Esleipenaren arrazoieta aplikatzekoa izango da 153. artikuluan biltzen den konfidentzialtasunaren salbuespena.

Edonola ere, kontratugilearen profilean eta jakinarazpenean, kontratua zer epetan formalizatu beharko den emango aditzera, 156.3 artikuluari jarraituta.

Lizitazioa eta esleipena honakoetan, gutxienez, eman beharko dira argitara:

- a) Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, eta Legearen 334. artikuluan aipatzen den kontratazio-plataforman edo Entitateari dagokion Herri Administrazioak kudeatzen duen sistema baliokidean.
- b) Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Era berean kontratuaren lizitazioaren, esleipenaren eta formalizazioaren iragarkiak kontratugile-profilean eman beharko dira argitara.

IV. Errekurtsoak

1. PRESTATZEA ETA ESLEITZEA

Aukerako izaeraz, honako egintza hauek egon daitezke kontratazioaren arloko errekurto bereziaren mende, administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri aurretik:

- a) Lizitazioaren iragarkiak, pleguak eta kontratu-dokumentuak, kontratazioa eraundu behar duten baldintzak ezartzen dituztenak.
- b) Esleipen-prozeduran finkatutako izapide-egintzak, betiere esleipenaren gainean zuzenean edo zeharka erabakitzen badira, prozedurarekin jarraitzeko ezintasuna zehazten badute, edo interes edo eskubide legitimoei kalte edo babesgabezia konponezina sortzen badiete.
- c) Hartutako esleipen-erabakiak.



Errekurtsoa Donostiako Etxegintza enpresa-entitate publikoaren bulegoetan – Mandasko Dukearen pasealekua, 12 behe-oina, Donostia (20003)– edo Donostiako Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu ahal izango dira.

Errekurtsoa ebazteko eskumena Donostiako Udalean dagokion organoak izango du, SPKLTBren 41. artikuluko 4. eta 5. idatz zatietan aurreikusitakoaren arabera.

Errekurtso berezi hori SPKLTBren 40. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera bideratuko da.

Behin-behineko neurriak eskatzeari dagokionez, SPKLTBren 43. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Errekurtsoaren erabakiaren aurka **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** soilik jarri ahal izango da, betiere administrazioarekiko auzi-jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

SPKLren II. Eranskineko 17tik 27ra bitarteko kategorietan sartzen diren zerbitzu-kontratuak erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden arren – zenbatekoa edozein izanik ere–, zerbitzu-kontratu horien zenbatekoa 193.000 eurokoa edo handiagoa bada, kontratazioaren arloko errekurtso bereziaren eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren mende egon daitezke kontratu horiek, idatz zati hartan aurreikusten den moduan.

2. ONDORIOAK ETA AMAIERA

Kontratu horiek betetzearen edo iraungitzearen arloko eta kontratu horien ondorioen arloko edozein gairen aurrean, **jurisdikzio zibilari** soilik jarri ahal izango zaio errekurtsoa.

V. Ofizioz berraztertzea

Erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak prestatzeko egintzak eta errekurtso horiek behin-behineko eta behin betiko esleitzeko egintzak ofizioz berraztertuko dira, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen zazpigarren tituluaren lehen kapituluan ezarritakoaren arabera.

Entitatearen tutoretza duen Donostiako Udalaren Sailaren titularrak izango du egintza horien baliogabetasuna edo kaltegarritasuna deklaratzeko eskumena.



Hori guztia, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 34. artikuluan aurreikusten denaren arabera.

D. KONTRATUGILE PROFILA

Donostiako Etxegintza enpresa-entitate publikoak internet bidez hedatuko du bere kontratugile-profila. Horrela, kontratuko jardueraren inguruko gardentasuna bermatuko du, eta kontratuko jarduerari buruzko informazioa guztiengana irits daitekeela ziurtatuko du.

Pleguetan eta lizitazio-iragarkietan, besteak beste, zehaztuko da kontratugile-profilera sartzeko modua.

Kontratugile-profila eusten duen sistema informatikoak gailu egokia izan beharko du bertan gaineratutako informazioa noiz hasten den hedatzen zinez egiaztatzeko.

Donostiako Etxegintza enpresa-entitate publikoaren kontratugile-profilean honako datuak eta informazioak emango dira argitara:

- a) Kontrataziorako barne-jarraibide hauek.
- b) Kontratuen lizitazio-iragarkiak, publizitaterik gabeko kontratu txikiak eta negoziatuak izan ezik.
- c) Kontratuen esleipena, publizitaterik gabeko kontratu txikiak eta negoziatuak izan ezik.
- d) Kontratuen formalizazioa.

Horrez gain, kontratugile-profilean Donostiako Etxegintza enpresa-entitate publikoaren kontratuko jarduerari buruzko edozein datu eta informazio barne hartuko da, honakoak besteak beste: Legearen 141. artikuluan aurreikusten diren informazio-iragarkiak; irekita edo aribidean dauden lizitazioak; lizitazio horien dokumentazioa; programatutako kontratazioak; esleitutako kontratuak; bertan behera geratutako prozedurak; kontratazio-organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitezkeen harreman-puntuak eta komunikazio-bideak; eta abar.



I. ERANSKINA

4. artikulua. Kanpoan dauden negozioak eta kontratuak

1. Lege honen esparruaz kanpo daude honako negozio eta erlazio juridiko hauek:

a) Funtzionario publikoen zerbitzu-erlazioa eta lan-legerian araututako kontratuak.

b) Zerbitzu publiko bat egitearen ondoriozko erlazio juridikoak, baldin eta zerbitzu hori erabiltzeko aplikazio orokorreko tarifa, tasa edo prezio publiko bat ordaindu behar den.

c) Estatuko Administrazio Orokorrak honako erakunde hauekin egiten dituen elkarlanerako hitzarmenak, eta organismo eta entitate hauek elkarren artean egiten dituzten elkarlanerako hitzarmenak –haien izaeragatik Lege honen mendeko kontratutzat jotzen direnak izan ezik–: Gizarte Segurantzaren zerbitzu komunak eta entitate kudeatzaileak, unibertsitate publikoak, Autonomia Erkidegoak, tokiko entitateak, organismo autonomoak eta gainerako entitate publikoak.

d) Hitzarmenak arautzen dituzten berariazko arauen indarrez, Administrazioak zuzenbide pribatuaren mende dauden pertsona juridikoekin edo fisikoeekin egiten dituen hitzarmenak, betiere hitzarmenaren xedea ez badago Lege honetan edo administrazio-arau berezietan arautako kontratuen xedeen artean.

e) Europar Batasunaren Funtzionamenduko Itunaren 346. artikuluaaren esparruan barne hartzen diren hitzarmenak –defentsaren sektorean erabakitzen direnak–.

f) Estatuak beste Estatu batzuekin edo nazioarteko zuzenbide publikoko entitateekin egiten dituen hitzarmenak.

g) Herri Administrazioen mendeko zuzenbide publikoko organismoen zuzeneko jardueri dagozkien hornidura-kontratuak –organismo horiek merkataritzako, industriako, finantzako edo antzeko beste arlo batzuetako jarduerak garatuko dituzte–, baldin eta kontratu horien mende dauden ondasunak (aldaketekin edo aldatu gabe) ondare-trafiko juridikora itzultzeko asmoz eskuratu badira haien xede bereizgarrien arabera, betiere organismo horiek Legeak esleitzen dizkien berariazko eskumenen jardunean dihardutenean.

h) Europar Batasunaren Funtzionamenduko Itunaren arabera, Europar Batasuneko kide ez diren herrialde batekin edo batzuekin egindako nazioarteko akordioen ondoriozko kontratuak eta hitzarmenak, betiere obra bat batera egiteari edo ustiatzeari zuzendutako obrei edo hornidurei dagozkienak edo proiektu bat batera egiteko edo ustiatzeko zerbitzuen kontratuei dagozkienak.

i) Armada kokatzaren alorreko nazioarteko akordioaren indarrez egindako kontratuak eta hitzarmenak.

j) Nazioarteko antolakunde baten berariazko prozedura baten indarrez esleitutako hitzarmenak eta kontratuak.

k) Arbitrajeko eta adiskidetzeko zerbitzuei dagozkien kontratuak.



l) Baloreak edo beste finantza-tresna batzuk jaulkitzearekin, erostearekin, saltzearekin eta eskualdatzearekin lotzen diren finantza-zerbitzuen kontratuak, zehazki: Estatuaren finantza-kudeaketako eragiketak; sektore publikoko erakundeek, organismoek eta entitateek funtsak edo kapitala lortzeko eragiketak; Espainiako Bankuak egindako zerbitzuak; eta diruzaintzako eragiketak.

m) Sektore publikoko erakunde, organismo edo entitate batek ondasunak edo eskubideak emateko edo zerbitzuren bat egiteko konpromisoa hartzen duen kontratua. Edonola ere, ondasunak eskuratzen dituenak edo zerbitzuen hartzaileak (baldin eta Lege honen mende dagoen sektore publikoko entitate bat bada) kontratua egiteko aginduetara moldatu beharko dute.

n) Entitate bati zerbitzu jakin bat egitea agintzen dioten negozio juridikoak –entitate horrek berezko bitarteko izaera eta zerbitzu teknikoko izaera izan beharko du, 24.6. artikuluan adierazitakoaren arabera–. Hala ere, Lege honen mende egongo dira berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko gisa har daitezkeen entitateek enkarguaren ondoriozko zerbitzuak gauzatzeko egin behar dituzten kontratuak. Horretarako, egiten dituen entitatearen eta zenbatekoen arabera bidezkoa izan daitekeena hartuko da aintzat. Edonola ere, obra, zerbitzu edo horniduren arloko kontratuak direnean, eta horien zenbatekoak Aurretiazko Titulu honen II. Kapituluen 2. sekzioan ezarritako atalaseak gainditzen dituztenean, zuzenbide pribatuko entitateek 137.1 eta 190. artikuluetan ezarritako arauak izango dituzte kontuan kontratu horiek prestatzeko eta esleitzeko.

o) Jabari publikoko ondasunen gaineko baimenak eta emakidak ustiatzeko kontratuak eta 7. artikuluan definitutakoaz bestelako ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuak, haien berariazko legeriaren arabera arautuko direnak –Lege honen aginduak aplikatzekoak izango direla aditzera ematen den kasuetan izan ezik–.

p) Ondasun higiezin, balio negoziagarrien eta jabetza ukiezinen gaineko salerosketako, dohaintzako, trukeko, errentamenduko eta gainerako antzeko negozio juridikoetako kontratuak, betiere ordenagailuko programei ez dagozkienean eta hornidura-kontratu edo zerbitzu-kontratu gisa kalifikatu behar direnean izan ezik. Izan ere, kontratu pribatuko izaera izango dute beti, eta ondare-legeriari jarraituz eraenduko dira. Kontratu horietan ezin izango dira sartu Aurretiazko Tituluaren II. Kapituluko 1. sekzioan arautzen diren kontratu tipikoen berezko zerbitzugintzak, baldin eta horien balio zenbatetsia negozioaren guztizko zenbatekoaren 100eko 50etik gorakoa bada, edo ondare-kontratuaren berezko zerbitzugintzarekin lotespenez erlaziorik mantentzen ez ez badute eta osagarriak ez badira –25. artikuluan aurreikusten den moduan–. Bi suposizio horietan, zerbitzugintza horien kontratazio independentea egin beharko da, Lege honetan ezartzen denaren arabera.

q) Estatuko ikerketako organismo publikoek eta Autonomia Erkidegoetako antzeko organismoek egindako zerbitzu eta hornidurako kontratuak, baldin eta ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko proiektuak gauzatzeko beharrezko zerbitzugintzak, produktuak edo zerbitzu teknikoak gauzatzea bada horien xedea. Edonola ere, horien ondoriozko emaitzak aurkezteak eta lortzeak lotuta egon beharko du trafiko juridikora txerta daitezkeen erretornu zientifikoekin, teknologikoekin edo industrialekin. Gainera, horiek gauzatzeko esleipena lehia-prozesuen bitartez agindu beharko zaizkio organismoaren ikerketa-taldeei.



r) Kontratazio-organoak osorik ordaindutako ikerketa-eta garapen-kontratuak, betiere merkatuan eskura dauden soluzioak gaituzten soluzio berritzaileak garatzeko beharrezko ikerketa zientifikoaren eta teknikoaren arriskuak eta onurak enpresa esleipendunekin partekatzen badira. Kontratu horien esleipenean, publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, konfidentzialtasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak errespetatzen direla ziurtatu beharko da, baita ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena hautatzearen printzipioa ere.

2. Aurreko idatz zatian zerrendatutako kontratuak, negozioak eta erlazio juridikoak haien arau berezien bidez arautuko dira; alabaina, Lege honen printzipioak aplikatuko dira aurkez daitezkeen zalantzak edo hutsuneak ebazteko.



II. ERANSKINA

13. artikulua.

2. Aurreko idatz zatian adierazitakoaz bestalde, honako kontratuak ez dira erregulazio harmonizatuaren mende egongo, horien balio zenbatetsia edozein izanik ere:

a) Irratidifusioko organismoek irratidifusiorako programak erostea, garatzea, ekoiztea edo batera ekoiztea helburu dutenak, eta irratidifusioko aldiari dagozkionak.

b) Kontratazio-organoak osorik ordaindutako ikerketakoak eta garapenekoak, baldin eta horien emaitzak organo horrek bere jarduerarako soilik erabiltzeko gordetzen ez badira.

e) Europar Batasunaren Funtzionamenduko Itunaren 346. artikuluaaren esparruan barne hartzen direnak –defentsaren sektorean erabakitzen direnak–.

d) Sekretuak edo erresebatuak izendatzen direnak, edo, gauzatu nahi badira, segurtasun-neurri bereziak behar dituztenak –indarrean dagoen legeriaren arabera–, edo Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babestea eskatzen dutenak.

Azken zirkunstantzia horren aitortpena espresuki egin beharko du, kasuak kasu, Estatuko Administrazio Orokorraren, haren organismo autonomiadunen, entitate kudeatzaileen eta autonomia-erkidegoetako zerbitzu komunen kontratazio-organoari dagokion ministerioko saileko titularrak, edo tokiko entitateetan dagokion kontratua egiteko eskumena duen organoak. Ezin izango da aitortpen hori egiteko eskumena eskuordetu, lege batek espresuki baimentzen duenean salbu.

e) Kontratazio-organoei telekomunikazio-sare publikoak abian jartzeko edo ustiatzeko aukera ematea helburu dutenak, edo hiritarrei telekomunikazio-zerbitzu bat edo batzuk hornitzeko aukera ematea helburu dutenak.

 Donostiako Etxegintza Entidad Pública Empresarial de Vivienda	
Administrazio Kontseiluak onartua.	Aprobado por el Consejo de Administración.
2012 UZT: 27	
Kontseiluko Idazkaria El/La secretario/a del Consejo	
	

III. ERANSKINA

Entitatearen izena		KONTRATAZIO ESKAERA	
DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ENTITATE PUBLIKOA			
Eskatzailea			Data
KONTRATAZIOAREN XEDEA ETA KONTRATU MOTA			
BETE BEHARREKO PREMIEN IZAERA ETA IRITSIERA			
KONTRATUAREN JUSTIFIKAZIOA ETA EGOKITASUNA			
ZEHAZTAPEN TEKNIKO INTERESDUNAK			
GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA			
Zuzendari-Gerenteak ikus-onetsia		Sail ekonomikoko arduradunak ikus-onetsia	
Izena		Izena	
Data		Data	